

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak ATANAREN 10. batzar orokorrari amaiera eman dio

Nafarroako IKTen sektoreko 71 enpresa biltzen ditu elkarteak

Martes, 29 de mayo de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak [ATANA](#)ren 10. batzar orokorrari amaiera eman dio gaur arratsaldean. Nafarroako Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) sektoreko enpresak biltzen ditu elkarteak, orotara 71 enpresa.

Ekitaldia Nafarroako Enpresarien Konfederazioaren egoitzan burutu da eta ATANako lehendakari Miguel Ángel Latasak egindako ongietorriarekin hasi da. Ondoren, VMware software-aren inguruko hitzaldia eskaini du VMware Iberia-ko zuzendari nagusi María José Talaverak, eta, azkenik, itxiera ekitaldia egin da Barcina Lehendakaria eta Nafarroako Enpresarien Konfederazioko lehendakari José Antonio Sarría-ren eskutik.

Aurretik, bazkideek bilera egin dute. Bertan elkartearen kontuak eta jarduerak aurkeztu dira. Aipatzekoak dira 2011. urtean egindako plan estrategikoa eta Industria, Turismo eta Merkataritza Ministeriori egindako eskaera ATANA Enpresa Berritzaileen Elkarte gisa aitortzeko.

ATANA 2002. urtean sortu zen eta 71 enpresa biltzen ditu egun, informazioen teknologiarekin, komunikazioarekin, elektronikarekin, ikus-entzunezko sektorearekin eta antzekoekin zerikusia duten produktuak garatzen, ikertzen, ekoizten edo/eta saltzen dituztenak. Nafarroako IKTen sektoreko enpresen %85-a dago bazkide-tuta elkartera. Eurek 125 milioi euro fakturatzen dituzten urtean.

Elkarteak bi helburu nagusi ditu: batetik, bazkide-tuta dauden enpresen garapena, handitzea eta sendotzea sustatzea; eta bestetik, Nafarroako IKTen sektorearen garapena eta ezagutza bultzatzea.



Barcina Lehendakaria, Sarría (ezker) eta Latasa-rekin (eskuin), ATANAREN batzar orokorraren itxiera ekitaldian.